



Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la MATAren heriotzaren/bizitzaren XIX. URTEURRENA beteko da otsail honetan. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gil Ruizek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora. Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, IZARGAINentzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko ERASONEA - DE LA MATAENEA n egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: otsailaren 23an, igandean, goizeko 11etan.

Aldi berean, zuekin beste bi urteurren ospatu nahi dugu: sortzailea izan zen Donostiako IZARGAIN-DELAMATAREN ESKOLAK 40 urte bete ditu, eta ERASONEA-DE LA MATAENEA etxeak 35. Biak Jose Luisen ondare emankorrek dira; bien bitartez aberastu gintuen eta guk babeslekutzat ditugu.

2024-25eko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria ere aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Donostiako Izargain-DelaMataren Eskolan astero garatzen ari garen www 17. Mintegia-ekin. Jose Luisek sistematizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsa modelo etikoa eta iraultzailea da gure lanbiderako, osasun-tekniko gisa; eta eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak zaintzeko bete-betean indarrean jarraitzen du.

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurtan berriro ere, antzerkiaz gozatzera eramango gaitu. Guztion artean, Paola Cortellesi-ren Siempre nos quedará mañana antzeztuko dugu. Lanaren bilbeak emakumeen kontrako jazarpen pertsonala zein soziala zintzoki deskribatzen du eta, aldi berean, Itxaropenaren alaitasuna eskaintzen digu.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, bazkaria egingo dugu (bazkarian geratuko zaretenok mezua bidali ulumago@hotmail.com helbidera, otsailaren 20a baino lehen, mesedez).

Areson zuen zain gaituzue... Etorri!
Besarkada bero bat.

Izargain-Areso
DE LA MATAENEA
2025eko otsailan

